

Baina badira kontrako jarrera dutenak ere: David King, Human Genetics Alert erakundeko zuzendaria, esaterako, amatasun subrogatuaren nazioarteko merkatuaren sorrera erregularizatzearen kontra azaldu da. «Ez dut bizitzaren aldeko taldeen ikuspuntuaren alde egin nahi, baina arduratu egiten nau haurrak merkatu libreko sistema baten bidez edukitzeak ekar dezaken deshumanizazioak. Lehenik eta behin, haurrak kontsumo artikulu bilakatzen ditugulako. Bi-

garrenik, India bezalako herrialdeetako emakumeen esplotazio izugarria ematen ari delako. Izan ere, txirotasunak baldintzatura, euren burua praktika hauek behartuta ikusten dute emakume askok». Indian, merkatu honek 1.000 milioi dolarretik gora mugitzen dituela uste dute adituek.

Txanponaren beste aldean, haurrak eduki ezin dituzten pertsonak daude. Horientzat, alokairuzko ama da haurrak izateko bide bakarra. Lagundutako

ugalketa tratamenduak ez daude bikote guztien eskura, garestiak, denboran luzeak eta ziurtasunik gabekoak izaten direlako. Eta horrek galdera ugari jartzen ditu mahai-gainean: prozesu hau zaildu eta oztopatzea da egokiena? Edo, alderantziz, bikote askorentzat haurrak izateko bide bakarra dela aintzat hartuta, egokiena onartu eta “zerbitzu” horrengatik ordaintzea al litzateke? Ghevaerten iritziz, biak izan daitezke bateragarriak: «Altruismoa eta komer-

tzializazioa, biak eman daitezke. Indian, Ukrainian eta AEBetan kasu arrakastatsuak ikusi ditugu, zeintzuetan amek altruismo maila handi batekin hartzen duten parte prozesuan eta egiten ari diren ekintzaren kontzientzia osoa duten. Hau da, badakite haurrak eduki ezin dituztelako euren bizitza hondamendigisa bizi duen bikote bati sekulako oparia egiten ari direla».

Kingek, errealtate horretaz jabetuta ere, esplotazio arriskuan jartzen du begia: «Pertso-

na askok haurrak izateko nahi eta behar izugarria dute, baina ezin dugu behar horrek emakume txiro eta babesgabeen esplotaziora eraman gaitzan utzi».

«HAURREN FABRIKEN» NEGOZIOA

Haurrak izateko bide hau erabiltzen duten askok Indiara jotzen dute, han ez baitago alokairuzko amen errealtatea erregulatzen duen legedirik. Datu ofizialen arabera, negozio honek urtero 1.000 milioi dolar mugitzen ditu herrialdean eta azken iskanbila orain hilabete batzuk sortu zen, argitalpen batek «haurren fabriken» berri eman zuenean. Haurdun dauden bitartean, alokairuzko amen taldeak etxebizitzaren berean bizi dira. Behin haurra edukita, dagokiena kobratu eta alde egiten dute. Emakume hauek dituzten bizi baldintzak salatu izan dituzte eragile askok, eta zenbait emakumeren iritzia ere bildu dituzte. Tartean Vasantirena.

Vasantik 28 urte ditu, eta bikote japoniar baten haurra darama barruan. «Indian familiek oso harreman estua izaten dugu. Edozer egiten dugu gure seme-alabengatik. Nireek nik beti desiratu dudan guztia lor dezaten nahi dut; horrengatik erabaki nuen alokairuzko ama izatea», dio. Erditzen denean 8.000 dolar (6.000 euro inguru) jasoko ditu; etxe berria eraiki eta 5 eta 7 urteko bere seme-alabak eskola ingeles batera bidaltzeko nahikoa. «Ikaragarri pozik nago», aitortu du Vasantik, inoiz ez baitzuen pentsatu ere egin hori egin ahalko zuenik.

India iparraldeko Anand herrian (Gujarat estatuan) ezarri zioten enbrioia Vasantiri, eta hurrengo bederatzi hilabeteak haurdun dauden beste 100 emakume bizi diren etxe batean igaroko ditu. Guztiak dira Nayna Patel doktorearen bezeroak. Gela bakoitza lau emakumek partekatzen dute, eta egunero elikagaiak eta bitaminak eman eta atsedean hartzeko eskatzen zaie. Vasantik, baina, urduri dagoela dio. «Gauetan ezin dut lorik egin eta pasioan ibiltzen naiz. Nire sabelaldea puztu eta haurra handitzen doan neurrian ge-



Indiako emakume bat bere haurra magalean hartuta. Emakume askok etxean dituzten seme-alabei jaten eman ahal izateko erabakitzen dute alokairuzko ama izatea.

GAUR8